

Galtzagorriak

Galtza gorriz jantzitako gizaki txiki-
txikiak dira galtzagorriak. Bizkorrak,
biziak, onak eta jostalariak dira jeinu
laguntzaile horiek. Jabeak orratzontzi edo
kutxatxo batean izaten ditu, eta haren
esanetara daude edozein lanetan
laguntzeko. Bizileku duten orratzontzia
irekitzean, nagusiaren buru inguruan
biraka hasten dira, zer egitea nahi duen
etengabe galdezka. Jabeak agindutako
lanak egiten aritzen dira gauez, eta,
etxekoen pozerako, hurrengo goizerako
amaituta izaten dituzte lanak. San Joan
bezperako gauean, sasi baten gainean,



orratzontzia edo bestelako ontzi bat utziz
gero, galtzagorriak bertara etortzen dira,
eta haien jabe egiten zara.

www.amaroa.com (egokitua)

1. Zergatik esaten zaie testuko pertsonaiei galtzagorriak?

- Txapel gorriak daramatzatelako.
- Praka gorriak daramatzatelako.

2. Non izaten ditu jabeak gordeta?

_____ izaten ditu jabeak gordeta.

3. Aukeratu, eta osatu esaldia.

Galtzagorriak beti egoten dira prest...

a) barre egiteko

b) lan egiteko

c) lana desegiteko

4. Lotu esanahi bereko hitzak.

nagusi •

• azkar

bizkor •

• jabe

pozik •

• alai

5. Galtzagorrien jabea izan nahi baduzu zer egin behar duzu?

behar dut.

6. Ordenatu hitzak alfabetikoki.

Jostalari galtza bizkor kutxa orratzontzi